

# Txiki eta Otaegi

Begietatik pasa dira balak.  
Espainolak ziren.  
Ezpatak ur dardaratan.  
Heriotzak ez dira  
Burgosen bakarrik fabrikatzen.  
Espainia heriotze fabrika bat da.

Jaungoikoak utzi zuen herria.  
Garraisika  
katedrale gotiko zorrotzaren  
lantza puntak. Gaztela garbi.  
Euskal mendi nahastu.  
Andreak eta gizonak, negarra darie begietatik.  
Euskadi guzian entzun dira bala zartadak.

Otoitz bat emango dizut  
biderako, bake zapitxo batekin.  
Eramazu zure izenaren hostia,  
eskuetan hartuta  
ama batek bezala,  
heriotzaren etxera.  
Otaegi, Txiki.

Haurraren azkeneko irribarrea  
ta balazoak triskaturiko  
kanta eman diogu  
Bartzelonari. Euskadiren mesedea.  
Askatasuna da, hiltzen eta kantuz.  
Zure irribarreak eta kantak  
— goratuta Euskadi —  
ekarriko zaituzte Euskadira.

Inuzentearen heriotza ematen diogu  
Gaztelari.

Katedrale gaudianoa. Zemento  
akribilatua. Dorre su bat negarrez.  
Harrizko tormentu bat.  
Katedrale bat gudarien heriotzari  
eman digu Bartzelonak,

Inuzentearen heriotza eman digu  
Gaztelak.

Kasi penarik ere ezin sentitu da  
hirian. Otaegi zen —  
Askatuta Euskadi biokin  
heriotzean — Txiki zen.

J. A.